

# **EUSKAMPUS FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK**

## **I. TITULUA**

### **IZENA, LURRALDEA, EGOITZA ETA HELBURUA**

#### **1. artikulua: Eraketa, izena eta iraupena**

Euskampus Fundazioa indarreko legeriaren arabera eratutako fundazioa da. Zehazki, honako hauek ditu arau; ekainaren 17ko 12/1994 Legea, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzkoa; ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuena; eta 101/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuena.

Euskampus Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da. Bere sortzaileek hala nahita, 6. artikuluan zehazten diren interes orokorreko helburuei atxikita dauka bere ondarea, epe mugarik gabe.

#### **2. artikulua: Araubidea, nortasun juridikoa eta gaitasun juridikoa**

Eratze eskritura Fundazioen Erregistroan sartzen duenetik fundazioak nortasun juridikoa izango du eta gaitasun juridiko osoa jarduteko, muga bakarra izanik sortzaileek eratze ekitaldian adierazitako borondatean ezarritakoak eta estatutu hauetan nahiz kasuan aplikatu beharreko legeetan (bereziki ekainaren 17ko 12/1994 Legean, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzkoan) zehaztutakoak.

Beraz – Babesletzari egin beharreko komunikazioak eginda edo eskatu beharreko baimenak eskatuta – fundazioak bere helburua betetzeko ekintza guztiak burutu ahal izango ditu.

#### **3. artikulua: Lurraldea**

Fundazioak nagusiki Euskal Herrian jardungo du, nahiz eta ez den horretara mugatuko. Izan ere, fundazioak beste eremu geografiko batzuetan ere jardun ahal izango du bere helburuak betetzeko.



#### 4. artikulua: Egoitza

Fundazioaren egoitza Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoregoko eraikinean egongo da, Bizkaiko Campusean (Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa, Bizkaia). Nahi izanez gero, Patronatuak egoitza aldatzea erabaki ahal izango du, eta horren berri eman beharko dio Fundazioen Erregistroari. Era berean, Patronatuak erabakiko du fundazioak zein establezimendu, ordezkaritza edo bulego izango dituen, halakorik eduki behar badu, bere helburuak betetzean sortzen zaizkion premien arabera.

#### 5. artikulua: Iraupena

Fundazioa irauteko eratu da, eta sortze eskritura egiten den egunean hasiko da jardunean, eta hortik aurrera fundazioa inskribatzeko ekintza guztiak burutu ahal izango ditu, bai eta bere ondarea zaintzeko ezinbestekoak direnak ere, eta fundazioarentzako kalterik gabe atzeratu ezin diren ekintzak. Ekintza guzti horiek bere gain hartuko ditu automatikoki fundazioak erregistroan inskribatzen denean, hots, benetako nortasun juridikoa hartzen duenean.

#### 6. artikulua: Fundazioaren helburuak

Fundazioaren helburua da Euskal Herriaren transformazio sozial, ekonomiko eta kulturalaren bultzagarria izatea, jakintzaren gizartean nazioarteko abangoardia izateko. Helburu hori betetzeko, honako hauek egingo ditu, besteak beste:

- Nazioartean izen handia izango duen prestakuntza, ikerketa, transferentzia eta berrikuntza gune bat eratzen laguntzea.
- Nazioarteko campus akademikoa sendotzea, kanpoan proiektatzeko kalitatezko goi mailako hezkuntza publikoaren eredu bat, jakintzaren gizartean txertatua dagoena.
- Lankidetzaren sustatu eta bideratzea Euskal Herriko agenteen artean (zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sareko entitateak,

enpresak, gizarte eragileak eta abar), eta Euskal Herriko eta nazioarteko eragileen artean, goi mailako prestakuntzaren eremuan, ikerketan eta jakintzaren baliarazpenean eta transferentzian, hori guztia gizarte osoaren onurarako eta nazioarteko testuinguruan kokaturik

- Euskal Herriaren izena nazioartean zabaltzea zientzia, teknologia, berrikuntza, sormen eta talentuaren gune gisa, eta nazioarteko entitateekin lankidetzan egonkorrerako hitzarmenak egiten ahalegintzea; pertsonen mugikortasuna sustatzea, eta prestakuntza, ikerketa eta berrikuntzarako programak elkarlanean sortzea.
- Munduko edozein bazterretatik talentuak erakarri eta haien leialtasuna lortzea, behar diren baliabideak jarriz pertsona horiei harrera egiteko, haien integrazioa eta jarduna errazteko.
- Zientzia, teknologia, arteak eta giza zientziak ikasi, ikertu eta gizartean zabaltzeko era guztietako jarduerak sustatu eta hedatzea, bakarka edo beste erakunde batzuekiko lankidetzan.
- Laguntzea Euskal Herriko Unibertsitateari nazioarteko bikaintasun campus gisa sendotzen, bere inguruko gainerako erakunde publiko eta pribatuekin lotura estua duen campusa, herritarrekin konprometituta dagoena, eta modu aktiboan lan egiten duena lurraldea garatzeko eta irtenbideak bilatzeko Euskal Herriak aurrean dituen erronketarako, hala arlo sozialean eta kulturalen nola ingurumenaren arloan..
- Bultzatzea era guztietako ekimenak gizartearen eta fundazioko entitateen arteko lotura sendotzeko.
- Modu aktiboan lan egitea euskal hizkuntza eta kultura gara daitezen eta gizartean oihartzuna izan dezaten, fundazioaren helburuen arabera.

Aurreko atalean azaldutako xedeak betetzeko, fundazioak era guztietako ekintzak burutu ahal izango ditu, edo helburu horiek betetzeko baliabideak lortzeko ekintzak.

Euskampus Fundazioa, UPV/EHUren bultzadarekin, ardatz izango da unibertsitatea partaide dela jakintzaren arlo guztietan jarduten duten erakunde guztientzat.

## **7. artikulua: Onuradunak**



Patronatuak fundazioaren baliabideak haren helburuen alde jarriko ditu, Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeko 30. artikulua betez.

Fundazioaren onuradun izango dira fundazioaren jardueren hartzaile diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

Fundazioak, interes orokorreko bere helburuen barruan, objektibotasun eta inpartzialtasunez jokatu beharko du bere onuradunak zehaztean, inongo bazterkeriarik gabe. Fundazioaren onuradun izango dira fundazioarekin, haren helburu orokorren barruan, lankidetzan jardun nahi duten pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatuak.

#### 8. artikulua: Publizitatea

Balizko interesdun edo onuradun guztiak izan dezaten fundazioaren jardunaren berri, Patronatuak behar bezala zabalduko ditu haren helburu eta jarduerak.

## II. TITULUA

### FUNDAZIOAREN ORGANOAK

#### 9. artikulua: Fundazioaren organoak

- Fundazioaren organoak dira, besteak beste, Patronatua eta Batzorde Eragilea.
- Fundazioaren gobernu edo ordezkaritzarako organoa Patronatua da.
- Aurrekoa gorabehera, Patronatuak batzorde ordezkoak edo aholku batzordeak izendatu ahal izango ditu.

## I. ATALA

## PATRONATUA

### 10. artikulua: Patronatua

#### 10.1 Patronatua

Patronatua organo gorena da fundazioaren gobernu, kudeaketa eta ordezkaritzarako. Berak dauzka fundazioaren helburuak betetzeko ahalmenik handienak.

#### 10.2 Osaera eta iraupena

Patronatua gutxienez 8 lagunek eta gehienez 42 lagunek osatuko dute.

Patronatua osatzen duten pertsonak fisikoak edo juridikoak izan daitezke. Patronatuko kide izateko, pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, eta ezin izango dira egon ezgaiturik kargu publikoak betetzeko. Pertsona juridikoak diren patronoek pertsona fisiko bat izendatu beharko dute beren ordezkaria izateko Patronatuan.

Patronoak izan daitezke berezkoak, izendapenezkoak edo hautapenezkoak:

Berezko patronoak: fundazioaren sortzaileek fundazioa eratzeko eskrituran horretarako izendatutakoak dira.

Honako hauek dira berezko kideak:

- Euskal Herriko Unibertsitateko edo bere ordezko entitateko errektorea eta ikerketa arloko eskumenak dituen errektoreordea.
- Tecnalia Fundazioko edo haren ordezko entitateko lehendakaria.
- Donostia International Physics Centerreko edo haren ordezko entitateko lehendakaria.

Izendapenezko patronoak: hauen izendapena aukeratzen dituenaren menpe egongo da. Honela aukeratuko dira:

- Euskal Herriko Unibertsitateko edo bere ordezko entitateko errektoreak bi aukeratuko ditu. Pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke.



- Tecnalía Fundazioko edo bere ordezko entitateko lehendakariak bat aukeratuko du. Pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke.
- Donostia International Physics Centerreko edo bere ordezko entitateko lehendakariak bat aukeratuko du. Pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke.

Izendapenezko patronoak mugarik gabe egongo dira karguan, baina aukeratu dituztenek gura dutenean kendu ahal izango dituzte kargutik. Edozelan ere, izendapenezko patrono bat kargutik kentzearekin batera, ordezkoa aukeratu beharko dute.

Hautapenezko patronoak: Patronatuak patronatua osatzeko izendatutako kideak dira, eta dira ez berezkoak ez izendapenezkoak. Pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke.

Hautapenezko patronoek bost (5) urteko agintaldia izango dute, eta behin baino gehiagotan izan ahalko dira hautatuak.

Ohorezko patronoak: fundazioaren helburuen alde egindako aparteko ekarpenengatik, Patronatuak izendapen hori egiten dien pertsonak edo entitateak dira.

Ohorezko patronoek aholku baino ez dute emango fundazioko Patronatuak iritzia eskatzen dien gaietan. Halakoetan, ohorezko patronoek hitza izango dute, baina ez botorik, eta haien presentzia ez da kontuan hartuko bilerak egiteko quorumari dagokionez edo erabakiak hartzeko gehiengoei dagokienez.

Patronatuak, bere lehendakariak proposaturik, ohorezko lehendakari edo lehendakariordeak izendatu ahal izango ditu, bai eta fundazioaren ongileak ere.

### 10.3 Patronoak izendatzea eta haien hutsuneak betetzea

Lehen patronatua fundazioaren sortzaileek izendatuko dute, fundazioa eratzeko eskrituran.

Aurreko 10.2 artikuluan fundazioaren sortzaileei aitortutako eskubidea eragotzi barik, hautapenezko patronoak izendatu behar direnean, dela Patronatua handitu behar delako, edo patronoen hutsuneak bete behar direlako, Patronatuak berak izendatuko ditu, bertaratutako (zuzenean edo ordezkarien bidez bertaratutako) kide guztien gehiengo osoak hartutako erabakiaren bidez. Edozelan ere, ezinbestekoa izango da bertaratutako berezko patronoen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratuen) gehiengo soilak aldeko botoa ematea.

Patrono izendatzen diren pertsonen kargua onartu beharko dute modu agerian, legeko 12. artikuluan jasotako formuletakoren bat erabiliz. Onarpena Fundazioen Erregistroan sartu beharko da.

Fundazioa sortu ondoren bertan sartzen diren patronoek fundazioari eman ahalko diote fundazioak une bakoitzean zehaztuko duen zenbatekoa; ekarpen hori ez da behin betikoa izango.

Izendapenezko patronoek kargua uzten dutenean heriotza, ezintasuna, ezgaitzea, heriotza adierazpena, kanporatze edo bateraezintasuna, ukoa, kargutik kentzea edo beste edozein arrazoi dela eta, kargua utzi duena izendatu zuen patronoak beteko du haren hutsunea, estatutu hauetako 10.2. artikuluari jarraiki. Edozelan ere, kargua ezin izango da hutsik egon sei hilabete baino gehiago.

Patronatuaren erabakiek balioa izan dezaten, Patronatuak izan beharko ditu estatutu hauetako 10.2. artikuluan zehaztutako gutxieneko kide kopurua.

Aginte judizialak uste badu patronoek ez dutela kargua bete legean eskatzen den arduraz, eginkizunez gabetu ahal izango ditu, haien kontra erantzukizuna eskatzeko akzioa abiaraziz.

Patronatuko kide diren pertsona juridikoek pertsona fisiko bat aukeratu beharko dute bere ordezkaria izateko. Patronatuko kidea kargu publiko edo pribatu baten jabe denean, pertsona horrek beste bat izendatu ahal izango du bere ordezkari jardun dezan.

Gobernu organoko kideen ordezkapena, kargutik kentzea eta eginkizunez gabetzea Fundazioen Erregistroan jasoko da.

## **11. artikulua: Patronatuko karguak**

### **11.1 Lehendakaria**



Patronatuko lehendakaria da fundazioaren ordezkari gorenena. Gainera, fundazioei buruzko arautegian aitortzen zaizkion eginkizunak ditu, eta, zehazki, honako hauek:

- Patronatuaren bileretarako deiak egitea.
- Egoki deritzen pertsonak gonbidatzea bileretara.
- Bileretan buru egon eta eztabaidak gidatzea, hitza emanez-edo kenduz, eta bozketetan berdinketa dagoenean gaia ebatziz kalitateko botoaren bidez.
- Erabakiak betetzea edo betetzeko agindua ematea, horretarako behar diren ekintzak burutuz eta dokumentu publiko nahiz pribatuak sinatuz.
- Fundazioaren ordezkari instituzionala izatea deñetariko pertsona, entitate, agintari, organismo eta administrazio publikoen aurrean.
- Oro har, Fundazioa zuzentzea, eta zeregin horretan egoki deritzen neurriak hartzea, behar diren ekintzak burutuz eta dokumentu publiko nahiz pribatuak sinatuz.
- Estatutu hauetan aitortzen zaion beste edozein ahalmen.

Fundazioko lehendakaria Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak izango du beti, eta berezko kargua izango da.

### 11.2 Lehendakariordea

Lehendakariordea fundazioko kideek izendatuko dute, edo, bestela, Patronatuko kideek hautatuko dute beren baitako kideen artetik. Lehendakariorde izateko, beharrezkoa izango da hautagaiak bertaratutako patronoen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutako) gehiengo osoaren aldeko botoak izatea, eta ezinbestekoa izango du berezko



patronoen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutako) gehiengo soilak haren alde bozkatzea.

Lehendakariaren kargua hutsik dagoenean edo lehendakaria kanpoan edo gaixorik dagoenean lehendakariordeak beteko ditu haren zereginak eta Patronatuak ematen dizkion guztiak. Lehendakariordea ez badago, Patronatuko kiderik zaharrenak beteko ditu eginkizun horiek guztiak.

Lehendakariak botoa eskuordetuko balu, botoa eskuordetu dion pertsonak lehendakariaren zereginak beteko ditu eta berak izango du kalitateko botoa berdinketa egonez gero.

### **11.3 Idazkaria**

Idazkaria Fundazioko patronoa izan daiteke edo ez. Patronoa ez bada, hitza izango du, baina botorik ez. Lehen idazkaria fundazioko kideek izendatuko dute, edo, bestela, Patronatuak hautatuko du. Idazkari izateko, beharrezkoa izango da hautagaiak bertaratutako patronoen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutako) gehiengo osoaren aldeko botoak izatea, eta betiere berezko patronoen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutako) gehiengo soilaren aldeko botoak.

Idazkariak fundazioaren dokumentazioa zainduko du, Patronatuko bileren aktak jasoko ditu eta haien ziurtagiriak egingo ditu lehendakariaren edo haren eginkizunak betetzen dagoen pertsonaren onespenerekin. Gainera, estatutu hauetan idazkariarentzat aurreikusitako gainerako eginkizunak eta beren-beregi eskuordetzen zaizkionak beteko ditu.

Idazkariak, nahi izanez gero, idazkariorde bat izendatu ahal izango du berari laguntzeko eta bera ordezkatzeko. Idazkariordeak idazkariaren zereginak beteko ditu idazkari kargua hutsik dagoenean edo idazkaria kanpoan edo gaixorik dagoenean. Idazkariorderik ez badago, eta idazkaria gaixorik edo kanpoan badago, edo idazkari kargua hutsik badago, Patronatuko pertsonarik gazteenak beteko ditu haren zereginak, edo Patronatuak horretarako izendatzen duen pertsonak.

### **11.4 Diruzaina**

Nahi izanez gero, Patronatuak diruzaina izendatu ahal izango du, bere baitako kideen artean edo ez, eta Patronatuak ematen dizkion eginkizunak izango ditu.

Honako eginkizun hauek izan ditzake:



- 1.- Fundazioaren dirua bildu eta zaintzea.
- 2.- Sarrerren eta gastuen balantzea aurkeztu eta sinatzea.
- 3.- Inbentarioen, kontuen eta aurrekontuen liburuak eta kontabilitateko egunkaria eramatea.

#### 12. artikulua: Doakotasuna

Patronoek ez dute dirurik jasoko kargua betetzeagatik. Hala ere, karguak sortzen dizkien gastuak ordainduko zaizkie, behar bezala justifikatuz gero.

Patronatuko kideek ordezkari bat beste kide bati eskuordetu ahal izango diote. Ordezkariaren eskuordetza idatziz emango zaio ordezkari bilerako bakoitzera. Inor ezin izango da izan patrono baten baino gehiagoren ordezkari.

#### 13. artikulua: Barne funtzionamendua

Patronatuak gutxienez 2 bilera egingo ditu urtean. Bat, urteko lehen sei hilabeteen barruan, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena, inbentarioa, jardueren memoria eta aurreko ekitaldiko egoeraren balantzea eta emaitzen kontua onartzeko, estatutu hauetan zehaztutako baldintzetan. Beste bilera, urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan, hurrengo ekitaldiko gastuen eta sarrerren aurrekontua onartzeko.

Patronatuak ezohiko bilera egingo du bere kideen herenak hala eskatzen diotenean edo lehendakariak hala erabakitzen duenean.

#### 14. artikulua: Deialdia

Patronatuko lehendakariak egingo du Patronatua biltzeko deialdia, Patronatuko kide bakoitzari jakinarazpen idatzia bidaliz bileraren eguna baino hamabost egun lehenago.

Deialdian bileraren lekua, gela, eguna eta ordua zehaztu beharko dira, eta lehendakariak erabakitako aztergaien zerrenda.

Patronatuko kideen heren batek eskatuta ezohiko bilerarik egingo balitz, aztergaien zerrendan nahitaez sartu beharko dira haiek proposatutako aztergaiak.

#### **15. artikulua: Patronatuaren eraketa eta deliberazioak**

Patronatua balioz eratzeko kideen erdiak eta bat gehiago bildu beharko dira.

Erabakiak bertaratuen (zuzenean edo ordezkarien bidez bertaratuen) aldeko botoen gehiengo soilaz hartuko dira. Lehendakariak kalitateko botoa izango du berdinketa gertatuz gero.

Aurreko atalean esandakoa gorabehera, estatutuak aldatzeko, fundazioa beste erakunde batekin batzeko, fundazioa desagiteko eta patronoak izendatzeko, beharrezkoa izango da bertaratutako kide guztien (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutakoen) gehiengo osoak aldeko botoa ematea, eta betiere ezinbestekoa izango da berezko patronoen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutakoen) gehiengo soilak aldeko botoa ematea.

#### **16. artikulua: Patronatuaren eskumenak**

Patronatuak eskumena dauka fundazioaren gobernuari dagokion guztian, eta, bereziki honako eginkizun hauek betetzeko, Patronatuaren ahalmen eskusibo eta finkoak baitira:

- Inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua, aurreko ekitaldiko memoria eta aldi horretako sarrera eta gastuen aurrekontuaren kitapena onartzea.
- Hurrengo ekitaldiko sarrera eta gastuen aurrekontua, haien azalpen txostena eta eginkizunen programa onartzea.
- Estatutuak aldatzeko, eta fundazioa beste erakunde batekin batzeko, fundazioa desagiteko eta kitapena egiteko erabakiak hartzea.
- Batzorde Eragileko kideak izendatzea.



- Babesletzaren baimena edo hura jakitun jartzea eskatzen duten edo fundazioaren ohiko gestiotik haragokoak diren erabakiak hartzea.

Fundazioaren helburuak errazago betetze aldera, Patronatuak Batzorde Eragileari eskuordetu ahal izango dizkio modu eskusibo eta etengabe ez dituen ahalmen guztiak. Beraz, Batzorde Eragilea Patronatuaren ordezkoa izango da estatutu hauetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan zehaztutako baldintzetan.

## II. ATALA

### BATZORDE ERAGILEA

#### 17. artikulua: Batzorde Eragilea

Batzorde Eragilea Patronatuaren ordezeko organo iraunkorra da. Gutxienez bost pertsonak osatuko dute, eta gehienez zortzik.

Edozelan ere, Batzorde Eragileak bost kide hauek izango ditu:

- Euskal Herriko Unibertsitateko edo haren ordezeko entitateko errektorea.
- Tecnalia Fundazioko edo haren ordezeko entitateko lehendakaria.
- Donostia International Physics Centerreko edo haren ordezeko entitateko lehendakaria.
- Euskal Herriko Unibertsitateko edo bere ordezeko entitateko errektoreak, patronatuko kideen artean, aukeratutako bi kide. Pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke. Bi kide horiek mugarik gabe izango dira Batzorde Eragileko kide, baina Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak edozein unetan kendu ahal izango ditu kargutik. Edozelan ere, izendapenezko patrono bat kargutik kentzearekin batera, ordezkoa izendatu beharko du.

Batzorde Eragileko gainontzeko hiru kideak izendatzeko patronatuko bertaratutako (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutako) gehiengo soilak beharko dira.

#### **18. artikulua. Karguak**

Patronatuko lehendakaria izango da Batzorde Eragileko lehendakaria. Bozketetan berdinketa gertatzen denean pertsona horrek kalitateko botoa izango du.

Fundazioko Batzorde Eragileko idazkaria kidea izan daiteke edo ez. Idazkariak beteko ditu Batzorde Eragileak edo haren lehendakariak eskuordetzen dizkieten zereginak, akta liburuez arduratuko da eta akten ziurtagiriak egingo ditu, batzordeko lehendakariaren edo haren ordezkoaren onespenerekin.

#### **19. artikulua. Deialdiak, bilerak eta deliberazioak**

Batzorde Eragilea bilduko da lehendakariak egoki deritzonean, baina gutxienez urtean bitan, edo batzordeko bi kidek gutxienez idatziz hala eskatzen dutenean.

Deialdian aztergaien zerrenda, eta bilerako lekua, eguna eta ordua zehaztuko dira. Deialdia idatziz bidaliko zaio kide bakoitzari bilerako eguna baino gutxienez hiru egun balioudun lehenago. Deialdian bilera premiazkoa dela adierazten bada, hiru eguneko epe hori laburtu ahal izango da.

Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, batzordeko kide guztiak aurrean daudenean eta aho batez erabakitzen dutenean bilera egitea eta aztergaien zerrenda adosten dutenean, ez da beharrezkoa izango aurretik deialdia egitea eta Batzorde Eragilea balioz eratuko da edozein gai aztertzeko.

Bileretara kideak edo beren ordezkoak joango dira. Edozein kidek eman ahal izango dio beste kide bati bera ordezkatzeko eskuordetza, baina beti ere ekintza jakinetarako.

Batzordea balioz eratzeko beharrezkoa izango da kideen erdiak eta bat gehiago bertan egotea (batzordeko kide guztien kopurua bakoitia bada, quoruma izango da "erdia gehi bat" horren hurrengo zenbaki osoa; adibidez: zazpi badira, gutxienerako quoruma izateko bost beharko dira). Erabakiak hartuko dira bertaratuen (zuzenean edo ordezkarien bidez bertaratuen) aldeko botoen gehiengo soilaz.

#### **20. artikulua. Batzorde Eragilearen eskumenak**



Batzorde Eragilea fundazioaren organo ordezkoa da, Fundazioaren gobernu, ordezkari eta kudeaketarako eskumenak izan ahalko dituen Patronatuak berak horrela erabakiz gero; edozelan ere, ezin izango ditu izan Patronatuaren eskumen eskusibo eta etengabeak direnak.

#### **21. artikulua. Zuzendari nagusia eta haren eskumenak**

Zuzendari nagusia Batzorde Eragileak izendatuko du, lehendakariak proposatuta. Bileran dauden batzordekideen (zuzenean edo ordezkarien bidez bertaratuen) gehiengo osoaz hautatuko da.

Zuzendari nagusia ez da Batzorde Eragileko kide izango, baina Patronatuaren eta Batzorde Eragilearen bileretara joan ahal izango da; bileretan, hitza izango du, baina ez botorik.

Batzorde Eragileak atzera bota ahal izango du zuzendari nagusiaren izendapena, baldin eta bertaratutako batzordekideen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutakoen) gehiengo osoak horren aldeko botoa ematen badu.

Zuzendari nagusiaren zereginak Batzorde Eragileak kasu bakoitzean ematen dizkionak izango dira. Batzordeak nahi dituen ahalmen guztiak eskuordetu ahal izango dizkio. Edozelan ere, behar besteko ahalmena izango du bere karguko zereginak betetzeko, hala nola: fundazioko organoen erabakiak eta jarraibideak kudeatu eta betetzea; fundazioaren helburuak hobeto betetzeko behar diren antolaketa lanak; eginkizunen programak prestatu eta proposatzea; pertsonalaren arloko politika kudeatzea; fundazioaren kontabilitatea eta finantzak antolatzea.

### **III. ATALA**

#### **ORDEZKO BATZORDEAK, AHOLKU BATZORDEAK ETA FUNDAZIOKO LANGILEAK**

#### **22. artikulua.- Ordezko batzordeak**

Patronatuak edo Batzorde Eragileak ordezeko batzorde bat edo gehiago eratu ahal izango dituzte, kasuan kasuko eskumenekin.

Ordezko batzordeak osatuko dituzte haiek eratu dituzten organoetako kideek.

Edozelan ere, ezin izango zaie eskuordetu kontuei eta aurrekontuari onespena emateko eskumena, ez eta ohiko kudeaketatik ateratzen diren ekintzak edo Babesletzaren baimena edo Babesletza jakitun jartzea eskatzen duten ekintzak.

### **23. artikulua: Aholku batzordeak**

Patronatuak edo Batzorde Eragileak aholku batzordeak izendatu ahal izango dituzte, gai jakinei buruz iritzia eman eta balorazioak egiteko.

Aholku batzordeen ekintzak ez dira lotesleak izango fundazioko gobernu organoentzat.

Aholku batzordeetako kideak Patronatuak edo Batzorde Eragileak izendatuko dituzte, bere ustez fundazioaren helburuak betetzen lagun dezaketen pertsona edo entitateen artean.

### **24. artikulua: Fundazioko langileak**

Fundazioak bere xedeak betetzeko antolaera egokia izango du. Fundazioko langileak zuzendari nagusiaren menpe egongo dira. Batzorde Eragileak izendatuko ditu, bere ekimenez edo zuzendari nagusiak proposaturik, fundazioaren zereginak hobeto betetzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion langileak.

Batzorde Eragileak, bere zuzendari nagusiaren bidez, gerentzia edo kudeaketa lanak edo fundazioaren izenean bestelako jarduerak egiteko eskumena eman ahal izango dizkie egoki deritzen pertsoneri, zeregin horien neurriko ordainsariarekin eta betiere legeek ezarritakoari jarraiki.

## **IV. ATALA**

### **LANKIDE ATXIKIAREN FIGURA**

#### **25. artikulua: Lankide atxikiaren figura**



Fundazioak lankide atxikiak eduki ahal izango ditu, hau da, beren jakituria, jardun, esperientzia edo ekarpenengatik fundazioaren helburuak betetzen lagun dezaketen pertsona fisiko eta juridikoak.

#### 26. artikulua: Lankide atxiki bihurtzea

Fundazioaren lankide atxikiak izan nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek horretarako eskaria egingo dute, baina Patronatoak onartzen dituenak baino ez dira lankide atxiki bihurtuko.

Patronatuak lankide atxikiarekiko hitzarmena egingo du, eta bertan zehaztuko du nolako konpromisoa hartu behar duen lankideak, eta zein baldintzatan, fundazioarekin.

#### 27. artikulua: Lankide atxikia izateari uztea

Fundazioaren lankide atxikiek kasu hauetan utziko dute kargua:

- Patronatuak modu arrazoituan hala erabakitzen badu, lankideak ez betetzeagatik beraren eta fundazioaren arteko hitzarmenean zehaztutako konpromisoak, edo hitzarmenaren indarraldia amaitzeagatik.
- Kiebra edo likidazioagatik (pertsona juridikoen kasuan), heriotzagatik, ezintasunagatik edo ezgaitzeagatik (pertsona fisikoen kasuan).
- Legeetan jasotako beste edozein arrazoiengatik.

### III. TITULUA

#### FUNDAZIOAREN ONDAREA



## I. ATALA

### KAPITALA ETA ONDAREA

#### 28. artikulua: Fundazioaren ondarea

Hauek dira fundazioaren ondarea osatzen dutenak:

- Fundazioa eratzeko eskrituran ezarritako hornidura.
- Patronatua bere helburuak betetzeko fundazioari modu finkoan atxikitzen dizkion ondasun eta eskubideak.

Fundazioaren ondarea, une bakoitzean, bere ondasun guztiek eta ekonomikoki baloratu daitezkeen eskubide guztiek eratzen dute.

Fundazioak era guztietako ondasunak eduki ahal izango ditu. Ondasunak kudeatu eta erabiltzean horri dagozkion arauak beteko ditu eta fruituak eta errentak fundazioaren helburuetarako erabiliko ditu, betiere estatutu hauei men eginik.

#### 29. artikulua: Baliabideak

Fundazioak baliabide hauek izango ditu:

- Estatuak, erakunde autonomiadunek, ente autonomiadunek, probintzia eta herri korporazioek eta bestelako pertsona juridiko eta fisikoek emandako diru laguntzak.
- Bere kapitalaren etekinak.
- Diru laguntzak, dohaintzak, herentziak eta legatuak.
- Fundazioak zerbitzu eta jardueren trukean jasotzen dituen zenbatekoak.
- Fundazioko kideen ekarpenak eta kuota ohikoak eta ezohikoak, eta Patronatuko kideek borondatez egiten dituzten ekarpenak eta ordaintzen dituzten kuotak, ohikoak eta ezohikoak.
- Fundazioak beste edozein kontzepturengatik jasotzen dituen gainerako sarrerak.



Urteko sarrerez gain, fundazioak patronoen urteko kuotak ere jaso ahal izango ditu. Zenbateko horiek fundazioaren jardueretarako erabiliko dira.

### 30. artikulua: Aldaketak ondarean

Fundazioaren kapitalak, balio nominala gorde arren, balio efektiborik edo eroste ahalmenik gal ez dezan, Patronatuak nahi duen moduan eta nahi beste aldiz aldatu, transformatu eta egokitu ahal izango du kapital hori, egoera ekonomiko bakoitzean komeni denaren arabera.

### 31. artikulua: Fundazioaren ondarea zaintzea

Fundazioaren ondarea zaintzeko, honako arau hauek beteko dira:

- Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak fundazioaren izenean egongo dira. Haren inbentarioan azaldu beharko dira eta, hala dagokionean, kasuan kasuko erregistroetan jasota.
- Ondasun higiezinak edota eskubide errealak fundazioaren izenean erregistratuko dira jabetza erregistroan. Inskribatu beharreko gainerako ondasunak dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.
- Baloreak eta eskudirua, jabetza tituluak, gordailu ordezkagiriak, eta jabaria, jabetza, erabilera, gozamena edo fundazioak daukan beste edozein eskubide egiaztatzen duten dokumentuak gordeko dira Patronatuak fundazioaren izenean aukeratzen duen entitatean.
- Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak erabakiko du nola zainduko diren.

Ondasun edo eskubide guztiok inbentarioen liburuan zehaztuko dira. Liburua Patronatuko idazkariak zainduko du eta berak bermatuko du

liburuan jasotzen direla ondasunak identifikatu eta deskribatzeko xehetasun guztiak.

## II. ATALA

### EKONOMIA ETA KONTABILITATERAKO ARAUBIDEA

#### **32. artikulua: Ekitaldi ekonomikoa**

Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da eta bat etorriko da urte naturalarekin, lehenengo ekitaldia izan ezik, hori fundazioa jardunean hasten denean hasiko baita.

Fundazioak aurrekontu arrunta egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, eta hor gastuak eta sarrerak planifikatuko ditu, modu orekatuan.

Aurrekontua Babesletzaren aurrean aurkeztuko da onartua izan den urteko azken hiruhilekoan, eta, harekin batera, azalpen txostena.

#### **33. artikulua: Ekonomia eta kontabilitate obligazioak**

Patronatuak inbentarioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua egingo ditu. Bertan islatuko du fundazioaren ondare, ekonomia eta finantza egoera, eta urtean zehar egindako jardueren eta ondarearen kudeaketa ekonomikoaren memoria, fundazioaren helburuak eta legeen aginduak ezagutu eta bete egin dituela frogatzeko moduan. Era berean, aurreko urteko aurrekontuko sarrera eta gastuen kitapena egingo du, betiere legean ezarritakoari men eginez.

#### **34. artikulua: Kontuak ematea**

Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteen barruan Patronatuak Babesletzaren aurrean egiaztatu beharko du bere kudeaketa fundazioaren helburuetarako egokia izan dela, Fundazioen Legeko 27. artikuluan adierazten den moduan.

## III. ATALA

### ERRENTAK FUNDAZIOAREN HELBURUETARA APLIKATZEKO ARAUAK

#### **35. artikulua: Sarreraren erabilera eta administrazio gastuak**



Fundazioak aldiro-aldiro bere helburua lortzeko jarduerak programatuko ditu. Horretarako, urtero prestazioak planifikatuko ditu erabakiko du eta nola egingo diren eta nori esleituko zaizkion.

Errenta garbien eta edozein kontzepturengatik eskuratzen diren bestelako sarreraren %70, fundazioaren helburuak betetzeko erabiliko dira –diruok eskuratzen direnetik hiru urteko epean –kasuan kasuko zergak behin kenduta.

Fundazioa eratzean edo gerora ondarrerako dohaintza moduan jasotako ekarpenak betebeharrak horretatik kanpo geratuko dira.

Gainerako sarrerak fundazioaren hornidura handitzeko erabili behar dira, behin kudeaketa gastuak kenduta (inoiz ez % 20 baino gehiago), salbu eta Babesletzak, fundazioak modu arrazoituan hala eskaturik, bestela jokatzeke baimen adierazia ematen badu, lege eta arauetan zehaztutakoa betez.

Fundazioa eratzean edo gerora ondarrerako dohaintza moduan jasotako ekarpenak betebeharrak horretatik kanpo geratuko dira.

#### IV. TITULUA

##### ESTATUTUAK ALDATZEA. FUNDAZIOA DESEGITEA ETA HAREN ONDASUNEN KITAPENA EGITEA

**36. artikulua.** Estatutuak aldatzea eta fundazioa beste erakunde batzuekin batzea.

Fundazioaren Patronatuak erabaki ahal izango du estatutu hauek aldatzea, fundazioaren helburuak hobeto betetzeko egoki ikusten badu. Estatutu hauetako 15. artikuluari jarraiki, Estatutuak aldatzeko erabakia hartzeko, beharrezkoa izango da bertaratutako kideen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutakoen) gehiengo osoak horren alde bozkatzea,

eta, betiere, berezko patronoen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutako) gehiengo soilak aldeko botoa ematea.

Era berean, Patronatuak erabaki ahal izango du fundazioa beste entitate batzuekin batzea, baldin eta fundazioaren helburua behar bezala beteko dela bermatuta badago. Beste entitate batzuekin batzeko erabakia arrazoitua izan behar da, eta beharrezkoa izango da bertaratutako kideen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutako) gehiengo osoak horren alde bozkatzea, eta, betiere, berezko patronoen (bertan dauden edo ordezkarien bidez bertaratutako) gehiengo soilak aldeko botoa ematea.

### **37. artikulua: Fundazioa desegitea**

Fundazioa honako arrazoi hauengatik desegingo da:

- Bere helburuak bete ezin baditu.
- Kode Zibileko 39. artikuluan edo beste lege batzuetan jasotako arrazoietakoren bat gertatzen denean.
- Batze prozesu batek hori gertatzea dakarrenean.
- Epailearen erabaki irmoak hala agintzen duenean.

### **38. artikulua: Fundazioa desegiteko prozedura**

Aurreko artikuluko 1. eta 2. ataletako kasuetan, fundazioa desegiteko beharrezkoa izango da Patronatoaren erabakia eta Babesletzaren onespena.

Fundazioa desegiteko erabakia arrazoitua izan beharko da eta azalduta ekarri beharko du ondarearen egoera eta kitapena egiteko programa.

Gobernu organoaren erabakirik ez balego edo Babesletzak berretsiko ez balu, fundazioa desegiteko beharrezkoa izango da epailearen erabaki arrazoitua. Babesletzak edo fundazioko organoak eskatu ahal izango du epailearen erabaki hori.

Fundazioa desegiteko erabakia edo epailearen erabaki arrazoitua Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

### **39. artikulua: Kitapena**

Foru Seilua  
Timbre Foral



N 4412183 B

Fundazioaren kitapenetik sortzen diren ondasunak eta eskubideak, patronoek fundazioa eratzeko eskrituran azaldutako borondateari jarraiki, Patronatuak bideratuko dira erabakitzen dituen interes orokorreko helburuetara, eta hor lehentasuna izango du Euskal Herriko Unibertsitateak.

Patronatuak halakorik egi ezean, Babesletzak ondasun horiek emango dizkie desegindako fundazioaren antzeko helburuak dituzten fundazio edo erakundeei, eta, lehentasunez, Euskal Herrian egoitza dutenei

Joseba Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna, Pedro Miguel Etxenike Landiribar jauna, Javier Ormazabal Echevarria jauna, Miguel Angel Gutierrez Ortiz jauna, Amaia Maseda García andrea, Juan José Unzilla Galán jauna, Rogelio Pozo Carro jauna, Alberto López Basaguren jauna eta Igor Campillo Santos jauna. Errubrikatuak.